

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipe Uribe Solagaistua

*Durango,
Bizkaia
(1928-2016)*

Aurkibidea



Biografia



1928an jaio zen [Zabalarra](#) auzoko [Kakatza](#) baserrian. Ama [Errotaritxuena](#)koa zuen eta aita Kakatza bertakoa. 4 neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 6 urteaz lurretako eskolara joan zen, eta gerraostean, 10-14 urte bitartean, [Kalebarri](#)ra (gaur egun liburutegia dago bertan) eta "La Villa"ra, eta gero Maristetara "Artes y oficios" ikasi aurretik. Gerra sasoian 5-6 hilabetez ebakuatuta egon ziren Bilbon, Karrantzan eta Torrelavegan. Handik itzulitakoan etxea suntsituta aurkitu zutenez, amaren familiarengana joan ziren Errotaritxuenera. Ikasketak bukatu zituenean, Mendizabalen tailerrean hasi zen lanean eta 21 urtez jardun zuen bertan. Ondoren, Funkorren, Zubian, Zaldibarko Egañan eta Izurtzako Bidekon aritu zen. Madalenako Olga Salaberriagaz ezkondu eta kalera joan zen bizitzera, [Madalenako](#) Zarandona etxera. Margolari trebea da. Erretiratu ostean palaz jolasten hasi zen, eta Hego Euskal Herriko txapela lortu zuen.

Zintak

DUR-015

- **Proiektua:** Durangoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Errazti Igartua, Alberto - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-02-18
- **Iraupena:** 142 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com